



FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure enpresa aurrera eramateko, hainbat baliabideen beharra izango dugu:

- **Baliabide fisikoak:** gure instalazioa Donostian (José Arana kalean, 2-12) alokatuko dugu. Alde batetik, hor gure produktuaren produkzioa egingo da, eta bestetik, bertan salduko da ere. Hortaz gain, lokal berdinean jarriko dugu bulegoa, bertatik sare sozialak eta internetari dagokion informazio guztia kudeatzeko, baita bezeroen deiak hartzeko ere. Hortaz, lokalak hainbat gela ditu eta beharrezkoa den leku guztia du. Gainera, garraioari dagokionez, gu geu arduratuko gara eta langile baten kotxea erabiliko dugu.





- **Baliabide intelektualak:** Guk diseinatutako web-orri bat sortuko dugu eta bertan eskaintzen ditugun entsalada motak, nondik lortzen ditugun, nutrizioari buruzko informazioa, gure produktuak jatearen abantailak, nortzuk garen, non gauden eta abar azalduko dira. Hala ere, guri eta gure produktuari buruzko informazio gehiago behar izanez gero, gurekin harremanetan jartzeko behar den informazioa ere agertuko da.

Gainera, Instagramen kontu bat ere sortu dugu, gure bezeroekin harreman estuago bat sortzeko. Kontuaren izena @ecofrolada da, eta bertan oso aktiboak izaten saiatuko gara.

Produktuari patentea sortuko diogu, hau gureganatzeko eta horrela guk bakarrik fabrikatu ahal izateko, eta baita saltzeko eskubidea ere izateko. Patentea sortzea 792,88€ kostatuko zaigu akatsik ez badu eta prozedura orokorraren bidez ematen bada; aldiz, 1.186,55 euroko balioa izatera iritsi daiteke frogaren bat egin behar bazaio. Gainera, eskubide horiei eusteko, urtero mantentze-tasei aurre egin beharko diegu, pixkanaka hazten direnak.

- **Giza baliabideak:** guztira 4 langile izango gara. Hasteko, bat sare sozialetaz eta enpresaren harremanetaz arduratuko da. Jarraitzeko, beste hiru langileak sukaldean arituko dira, pasta frolla egiten eta entsaladak prestatzen. Gainera, egunero gutako bat gure produktuan interesatuta dauden enpresetara joango da, bertan saltzeko. Halaber, sukaldean lan egiten dutenek harreran ere egingo dute lan, dendako bezeroetaz arduratzeko.

Beraz, langileek errezeta eta teknika ondo ezagutu beharko dute.

- **Finantza baliabideak:** hasieran 17.000€-ko mailegu bat eskatu beharko dugu banku batean, 5 urtetan zehar itzuliko duguna (328,27€ hilero), eta taldekide bakoitzak hasieran 1000€ inbertituko ditugu. Horri esker lehenengo soldatak, lehengaiak, makinak eta instalakuntzak ordaindu ahal izango ditugu. Soldata totala 7.416€-koa da, langile bakoitzari 1.854€ ordainduko zaizkio, non 354€-ko gizarte-segurantza barnean duen.